

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Artzentaiesko Udala****Zerbitzu anitzeko Peoiaren lanpostuaren (aldi baterako) deialdia eta oinarriak onestea.**

Zerbitzu anitzeko peoiaren lanpostu bi aldi baterako betetzeko prozesua arautuko duten deialdia eta oinarriak onestea, bai eta zerbitzuan sortu daitezkeen premiei aurre egiteko beharrezkoak diren izangaien zerrenda bat sortzea ere.

Udalbatzak, urriaren 28an egindako saioan, erabaki zuen zerbitzu anitzeko peoi bi hautatzeko prozesua eta aipatutako lanpostua betetzeko etorkizunean sortu daitezkeen premia iragankorrei aurre egiteko izangaien zerrenda eratzea arautzen duten oinarrien aldaketa onestea erabaki du. Era berean, prozesuaren deialdia onetsi zuen.

Hirugarren oinarriarekin bat etorritik, prozesuan parte hartzeko eskabideak baliodun 15 eguneko epearen barruan aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hain zuzen ere, Artzentaiesko Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango dira, bai telematikoki, bai aurrez aurre (San Migel auzoko 1. zenbakian), 8:00etatik 13:00etara, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarri den bezala.

Aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkeztu ahal izango da aipatutako Udalbatza-ren erabakiaren aurka, erabakia eman duen organo beraren aurrean, edo zuzenean aurkaratu administrazioarekiko auzien organo jurisdikzionaletan, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Artzentaiesen, 2021eko urriaren 27an. — Alkatea, Iosu Udaeta Santisteban

**ARTZENTALESKO UDALEAN ALDI BATERAKO
LAN-KONTRATAZIOAREN SISTEMA ARAUTZEKO OINARRIAK
(ZERBITZU ANITZEKO PEIOIAREN LANPOSTURAKO)****Lehenengoa. — Xedea**

Artzentesko Udalak, entitate horrek zerbitzu anitzeko peoiaren lanposturako aldi baterako kontratazioak egiteko interesdunen zerrrenda bat edukitzeko, etorkizunean aldi baterako langile lan-kontratudunak aldi baterako kontratatzeko zerrrenda bat osatu nahi du zereginak pilatzeagatik, plaza hutsak egoteagatik, oporraldiengatik eta abarregatik aldian-aldian sortu daitezkeen eta administrazio honetako zerbitzuetako langileek gauzatu ezin ditzaketen premiei erantzuteko, betiere, aurrekontu-xedapenek horretarako aukera ematen badute, Oinarri hauekin bat etorritik, administrazio publikoetako langileak hautatzeko legeria arautzailean jaso diren berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikitateari buruzko printzipioei dagokienez.

Bigarrena. — Betekizunak

Izangaiek, deialdietan eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide diren herrialderen bateko nazionalitatea edukitzea. Hala ere, edozein atzerritar espainiar estatuan erresidentzia legala izanik ere parte har dezake prozesuan.
2. 16 urteak beteak izatea edota erretiro adin maximora heldu ez izana.
3. Diziplina-espeditente baten bitartez administrazio publikoren baten zerbitzutik baztertua izan ez izana.
4. Udalean zerbitzuak emateko ezintasunik edo bateraezintasunik ez edukitzea.

Hirugarrena. — Eskabideak

Alkate jaunari bidaliko zaizkio kontratazio-zerrendan sartzeko eskaerak, eta udalean aurkeztuko dira 39/2015 Legaren 14. eta 16. artikuluetan onartutako edozein modutan baliodun (Astelehenetik-Ostiralera) hamabost eguneko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia ezartze egunetik.

Eskaerekin batera NANaren fotokopia aurkeztu beharko da. Bide berean ere onartuko da Europar Batasuneko kideetako nazionalitatea izatea egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, edo Europar Batasunak aurrera eramandako eta estatu espainiarrak onartutako hitzarmen internazionalen baitan langileen arteko zirkulazio askea onartuta duten Europar Batasuneko nazionala izatea (Artículo 57 texto refundido Ley 5/2015, de 30 de octubre del Estatuto Básico del Empleado Público). Baita ere onartuta egongo da Europar Batasuneko estatuetako herritar baten ezkontidea (legalki banandurik egon ezezik) edo semea izanez aurkeztea (21 urte baino gutxiago izanik, edo adin hau baino gehiago eukita menpeko persona bat izanez).

Kasu bakoitzaren arabera, halaber, honako hauek egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da: inguruabar pertsonalak, eskarmentu profesionala, merezimendu akademikoak, prestakuntza eta bosgarren oinarriaren araberrako beste merezimendu batzuk.

Izangaiek organo eskudunari merezimenduak egiaztatzeko eskatu badio baina ziurtagiriak garaiz jaso ez baditu, eskaeraren fotokopia konpultsatua erantsiko du, eta, geroago, eskatutako ziurtagiria jasotakoan, aurkeztu beharko du, espeditentean jasota gera dadin.

Eskaeran datuak ezkutatu edo faltsutu direla ikusten bada, izangaia kontratazio-zerrendatik kanpo gertuko da, eta oker egiteagatik dagozkion erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Laugarrena. — Onartuen eta baztertuen zerrenda

Deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Alkatetzaren ebazpenaren bitartez behin-behinean onetsiko da onartuen eta baztertuen zerrenda, eta



udaletxeko iragarki-taulan jarriko da ikusgai. Aldi berean, interesdunei pertsonalki jakinaraziko zaie dokumentazioa zuzentzeko errekerimendua, eta dokumenturen bat ez edukitzeagatik baztertu diren pertsonen hamar egun balioduneko epea emango zaie dokumentuak aurkeztu eta haien eskubidea defendatzeko egoki deritzeten alegazioak aurkezteko. Balorazio Batzordeak erreklamazioak aztertu ondoren, behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du Udalburutzak. Erreklamazioak ebatzi ondoren, Batzordeak eskaera guztiak baloratuko ditu, merezimenduekin bat etorritik. Izangaiak sailkatzeko hurrenkera zehazteko, lortutako puntuazio guztien batura egingo da.

Bosgarrena. — Hautaketa-prozesua

Hamaikagarren oinarrian lanpostu batzuetarako xedatutakoa gorabehera, merezimendu-lehiaketa izango da izangaiak kontratazio-zerrendan izango duten lekuaren hurrenkera zehazteko ezarriko den hautaketa-sistema, eta merezimenduak baremo honen arabera baloratuko dira:

I. Lan-eskarmentua

Atal honetan, gehienez ere, 5 puntu lortu ahal izango dira.

Administrazio publikoren batean edo enpresa publikoren batean hautatu nahi den lanpostuaren eduki bera edo antzeko edukia duen lanposturen batean zerbitzuak ematen egondako hilabete bakoitzagatik, eskumena duen erakundean igorritako ziurtagiri egokiaren bitartez egiaztatuta eta kontratu-mota beren-beregi adierazita: 0,20 puntu. Hilabete baino gutxiagoko zatikiak baztertuko dira.

II. Prestakuntza

Gehienez ere, 5 puntu lortu ahal izango dira atal honetan:

Lanpostuarekin zerikusia duten eta erakunde publikoek zein entitate ofizialek homologatutako erakunde pribatuek antolatzen eta ematen dituzten ikastaro, mintegi, kongresu eta jardunaldietara joateagatik.

- a) 20 eta 50 ordu artean: 0,10 puntu.
- b) 51 eta 75 ordu artean: 0,20 puntu.
- c) 76 eta 100 ordu artean: 0,40 puntu.
- d) 101 eta 125 ordu artean: 0,60 puntu.
- e) 126 eta 150 ordu artean: puntu 1.
- f) 250 ordu baino gehiago: 2 puntu.

Ez dira iraupena zehazten ez duten ikastaroak baloratuko.

III. Euskara jakitea

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetan igorria, honako puntuazio hauek ezarri dira:

- a) 1 maila: 0,5 puntu.
- b) 2 maila: puntu 1.
- c) 3 maila: 1,5 puntu.
- d) 4 maila: 2 puntu.

Seigarrena. — Balorazio batzordea

Artzentesko Udaleko Barne Araubideko Udal Batzordeko kideek osatuko dute Balorazio Batzordea, eta une horretan Artzentesko idazkaria den pertsonak egingo ditu idazkari-lanak, ahotsarekin baina botorik gabe.

**Zazpigarrena. — Desgaitasun funtzionalak**

Hautatu nahi duten lanposturako zereginak guztiz egitea eragozten ez dien % 33ko edo gehiagoko desgaitasunaren edo minusbaliotasunaren ziurtagiria aurkezten duten pertsonen dagokienez, udalak pertsona horiek kontratatzea erraztuko du, eta, horretarako, zerrendan duten hurrenkeraren arabera deituko die. Alabaina, egiten diren hamar kontratutik, gutxienez, bat desgaitasuna duten pertsonentzat izango da, eta egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak igorri duen eta indarrean dagoen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua bitartez, non desgaitasuna eta desgaitasun-maila zehaztu beharko diren.

Zortzigarrena. — Kontratuak egitea

1. Lehiaketako baremazioaren kalifikazioa amaitzen denean, Baremazio Batzordeak jendaurrean jarriko du zerrenda, handienetik txikienera ordenatuta, eta kategoria profesionalen eta eskatutako lanpostuaren arabera onartutako izangai bakoitzari emandako puntuazioa jasoko du. Horrez gain, Alkatetzari jakinaraziko dio, ebazpena eman dezan, etorkizunean izangaiak zerrendan duten hurrenkeraren arabera kontratatzeko, udalak unean-unean izan ditzakeen langileen premien arabera. Berdinketa gertatuz gero, bosgarren oinarriko ataletan lortutako puntuaziorik altuena edukiko da kontuan, baina hurrenkera honi jarraikiz:

- a) Lan-eskarmetua.
- b) Prestakuntza.

2. Kontratatzeko unea iristen denean, izangaiari modu frogagarrian eskatuko zaio (jakinarazpena eskura emanda, gutun ziurtatuarekin, telegramarekin...), eta bi egun balioduneko epea emango zaio, eskaintako kontratua onartzeko interesa duen edo ez adierazteko. Zalantzarik gabe eta jasota geratzeko moduko edozein bitartekoren bidez eman beharko du horren berri.

3. Epe horretan uko egin edo erantzuten ez badu, lan-poltsatik kanpo geratuko da interesduna eta zerrendaren hurrenkeraren arabera deituko zaio hurrengoari.

4. Interesdunak ondo justifikatutako arrazoi bategatik uko egiten duela frogatzen badu (lan-kontratu batekin lanean egotea, gaixorik egotea justifikatzea edo zentro ofizial batean ikasten egotea), uko egin duen pertsona erreserban geratuko da hautatu den kategoria profesionallean eskaini dakioken hurrengo lanposturako. Lanean dagoelako eskaini dakioken bigarren kontratuari ere uko egiten badiu, lan-poltsako azken postura mugituko da, eta gaixotasun bategatik uko egiten badu, berriz, duen hurrenkeran mantenduko da.

5. Interesdunak erantzuten ez badu, zerrendako hurrengo izangaiari jakinaraziko zaio, eta aurkitu ez den pertsona erreserban mantenduko da. Kontratatzeko aukera bi aldiz eskaini ondoren egoera bera errepikatzen bada, poltsako azken lekura mugituko da.

6. Kontratuak sei hilabete baino gutxiago irauten duen kasuetan, langilea erreserbarako txandan geratuko da beste kontratu bat sortzen denerako, eta horrekin, gutxienez, aldi hori osatuko da poltsa indarrean dagoen bitartean.

7. Kontratuak sinatu aurretik, langileak zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du lan-kontratazioetarako udal-bulegoan, non une horretan enplegu publikorik ez duela eta eskaini zaion lanpostuarekin bateraezinak diren beste jarduera batzuk egiten ez dituela adieraziko duen, Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legearen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

8. Langileak, guztira, mila ehun eta laurogeita hamasei euro eta laurogeita bost zentimo (1.196,85 euro) gordineko ordainsaria jasoko du hilean.

Bederatzigarrena. — Kontratazio-zerrendaren ezaugarriak

1. Deialdi bakoitzaren ondoren osatzen diren kontratazio-zerrendak urtebetez egongo dira indarrean, behin betiko ebazten direnetik aurrera zenbatzen hasita, eta automatikoki luzatuko dira, epe berarekin, beste deialdi bat egin arte.



2. Kontratazio-zerrenda txandakakoa izango da, eta langile enplegatua zerrendaren amaierara igaroko da sei hilabeteko gutxieneko aldia osatzen duenean.

3. Kontratazio-zerrenda irekia eta dinamikoa izango da; hortaz, zerrenda egin ondoren, urtero eta indarrean dagoen bitartean, nahi duenak bertan sartzeko aukera izango du. Horretarako, oinarrietan jaso den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du urtarrilean. Deialdiaren epea amaitzen denean sartu nahi duten pertsonak kontratazio-zerrendaren amaieran jarriko dira beste baremazio bat abiarazi arte. Une horretan, Batzordeak eskaerak barematuko ditu eta Alkatezari eskatzaile berriak sartzeko proposamena egingo dio, emaitzen arabera dagokion hurrenkeran. Ez da berriz egiaztatu beharko aurreko baremazio-aldian aurkeztu den eta, hortaz, dagoeneko udalean jasota dagoen dokumentazioa. Dokumentazio berria baino ez da aurkeztu beharko. Horrenbestez, dokumentazioa aldeztu aurretik aurkeztu duten izangaiek merezimendu berriak edo aurreko epean aurkeztu ez zuten dokumentazioa baino ez dituzte aurkeztu beharko. Bestalde, dokumentazioa aurkeztu beharko dute behin betiko zerrendan lehenengo aldiz agertzen diren izangai berriek

4. Kontratazio-zerrenda guztiz edo partzialki agortzen den unean edo ondo justifikatutako premiengatik beste deialdi bat kaleratu ahal izango da baliabiderik gabe geratu diren plazen kasuan.

Hamargarrena. — Kontratazio-zerrendatik baztertzeko irizpideak

Honako hauek behin betiko baztertuko dira kontratazio-zerrendatik, ondo justifikatutako kasuetan izan ezik:

- a) Lan-eskaintza bat onartzen ez duten pertsonak.
- b) Amaitu gabe dagoela, kontratua iraungitzen duten pertsonak.

Hamaikagarrena. — Titulazio edo prestakuntza espezifikokoaren betekizunak

Deialdi bakoitzean onartua izateko kasuan kasu eskatzen diren titulazio edo prestakuntza espezifikokoaren betekizunak zehaztuko dira, deialdia egiten denean indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik.